

Haizea, iparraldetik dator

Gamere-Zihigako jendeak igandean antzeztu zuen 'Eñaut Elizagarai' pastoralak arrakasta handia lortu zuen, eguraldi apartekoa lagun; 3.500 lagun joan zen Arbailako altzoko herrira.

ALLANDE SOKARROS
Gamere-Zihiga

Pastoralak ezin ditzake bere seme-alaba entzute-tsuenak ahaztu. Hori dela eta, Gamere eta Zihigako herritarrek igandean eman zuten *Eñaut Elizagarai* pastoralari hasi aurretik gertakari ezohikoa bizitu zen. Joan den uztailaren 13an, Santa Graziko bere sorleku eta bizilekuan izan zuen istripu baten ondorioz hil zen Jean-Yves Constatin *Etzebarne* samintasunez nahi izan zen gogoratu, isilune bat eginda. Santa Grazik 1992. urtean eman zuen *Santa Kruz* pastoralaleko sùjeta izan zen Jean-Yves Constantin, eta iaz herri horrek berak antzeztu zuen *Santa Engrazi* tragediako lehen perediküaren emalea izan zen.

Eñaut Elizagarai pastoralaleko arizaleak oholtzara igo aurretik eta sarrerako martxa etenda egin zen agur eta ohore egite hunkigarri horren ostean, ikusgarriak bere ohiko bidetik jarraitu zuen. Ordu-rako, ohol-tza inguruak ikusliarrez lepo beteta zeuden, hogeita hamar bat aulki soilik inor gabe geratu zi-

relarik. Hortaz, antolatzaileek paratutako leku ia guztiak bete zirenez, ikusleen kopurua 3.500 ingurukoa izan zela esan daiteke.

Pastoralaren bizitzat datozenean Zuberokoak eta inguru hurbiletako beste euskal herritarrek egon ohi badira, Euskal Herriko eskualde urrunagoetatik etortzen direnak ere badaude, eta ez gutxi. Hauetatik ziren, esaterako, Durangotik Gamere-Zihigara iritsita-lagunak.

Hiru ordu eta erdi iraun zuen ikuskizuna laburbiltzearen, esan daitekeena da oso ongi jokatu zutela 72 aktoreek, akats handirik egin gabe. Hilabeteetan, Jean-Pierre Rekalt errejentaren aginduetara egin dituzten trebapen saioen ondorioa da hori, lehenik eta behin. Alabaina, igandean egin zuen eguraldi apartekoa ere lagun izan zuten pastoralaleko arizaleek. Arratsaldea eguzkitsua izan zen, baina iparraldetik jotzen zuen haize goxo batek eragotzi zuen sargoria egotea, guztien mesederako, aktore, laguntzaile zein ikusle. Sargoririk ez, baina euria egoterik ere ez zorianez, itsasoaren kontuekin zerikusia zuen istorio bat izan arren, haizeak ez baitzuen alde hartatik jo, eguraldi txarra ekartzearen arriskuarekin.

SÜJETA ETA LUIS XIV. OSO DOTORE. Ikusgarriaz zer edo zer kontatzekotan,

Azken urteotan egin ohi den legez, sortutako dantza bat eman zen 'Eñaut Elizagarai' pastoralaleko jeltzaldian artean

nabarmendu daiteke Eñaut Elizagarai itsasontzidi ingeniariaren papera antzeztu zuen Nicolas Urruti sùjeta oso dotore aritu zela. Bere ahots argia eta polita denentzunean geratu zen. Daukan dohain hori guztiz nabarmena geratu zen, esaterako, berak bakarrik eman zituen lehen eta azken kantuetan. Faltatu zitzaiona, behar bada, ohol-tza gaineko jokoa presentzia gehixeago izatea izan zen. Alabaina, Luis XIV. Frantziako erregearen rola zuen Jean-Luc Tauzinen jokoak itzal handia egin zion horretan, oso dotore aritu baitzen zihigarra, bai bertsetak ematean, bai ohol-tza gainean ibiltzeetan.

Pastoralaleko 21. jeltzaldietan, arizaleen bertset emate eta mugitzeak arreta jartzeaz gain, ikusle askok kiristien zein türken jantzi eder eta distiratsuak miretsi zituzten. Arropa horien diseinuan jakintza zabala dakarren Erramun Garzia-Zabalegi Erreterterako jostunaz gain, Gamere-Zihigako andere jostunak eskertu nahi izan zituzten, pastoralaren ikusgarria amaitu ostean ohol-tzaren gainera etorrarazita. Merezitako txaloak jaso zituzten.

Pastoralaleko milurteetan dirauen ikusgarri egituraketa finko bat —lehen perediküa, jeltzaldiak, azken perediküa— egon egon bada ere, asko eta asko berritu da.

Pastoralaleko ohol-tza gainean dantzatzeko ohorea, 3.100 euro pagatu dute enkanteen irabazle Altzai eta Lakarrik



Jean-Luc Tauzinek Luis XIV. erregea oso ederki antzeztu zuen. NICOLAS MOLLO

arau hauen barne. Hala, azken urte hauetako pastoraletan ballet moduko dantza bat sartzea ohikoa bihurtu da. Gamere-Zihigak ere ildo hori eutsi nahi izan dio *Lehix-ta* izeneko dantza sortzearekin. Horrek jasotako txalo zaparradak agerian utzi bazuen ere ikusleen gustukoa izan zela, pastoralaleko batzuek, baina, ballet horiek pastoraletan sartzeaz ez deritzote egoki. Dena den, eztabaida egotea bizitasun seinale da...

Pastoralaleko pasadizo asko gerta

daitekeen ikusgarria bada ere. Hala, bi gudukatan hiltzerik ez zelarik egon, testuan hala idatzia zen arren... edo delta hegale motor-dun bat ikusgarri gaineratik ibili zelarik 19. eta 20. jeltzaldien artean!

Ohikoa egon zen, aldiz, pastoraletako ohol-tza gainean dantza egiteko ohorea lortzeko xedez, enkanteak egitea. Hamabi herri lehiatu ziren, eta, azken batean, Altzai eta Lakarrik eurenganatu zuten, 3.100 euro ordaintzearen truke.



Nicolas Urruti sùjeta (ezkerraldean lehena) kiristi eta türken arteko guduka batean. NICOLAS MOLLO

Hurrengo hiru urtetako pastoralen egutegia finkatuta dago jadanik

Pastoralak etorkizunik badu... hurrengo urteetan bat egiteko asmoa duten herrien zerrendari begiratu bazaio behintzat. Hala, datorren urtean, Aiharbe, Ezpeize-Ündüreine, Sarrikotapea eta Ürrüstoi-Larrabile herriek batuta emango dute Jean-Louis Davantek idatzia duen *Mau-leko Jauna* pastoralaleko. Honetan aipatuko dira Zuberoko azken bizkondea izan zen Mauleko Oier jaunaren bizi-urratsak eta garai haietan izandako gora-beherak.

2009. urtean, Aloze-Ziboze-Onize-gainea udalerriko herritarrek dute lekukoa hartuko, idazlea eta gaia oraindik zehaztuta ez dauzkan pastoraletako egiteko. 2010. urtean, berriz, Barkoxe herria da lehiatuko. 1998an *Herriko semea* pastoraletako eman zuten barkoxtarrek. Honen idazlea izan zen Patrick Keheillek du, ziur asko, pastoraletako berria izkiriartuko.

Oraindik datarik ez bada zehaztu ere, aipatu izan da 1991. urtean *Xalbador* eman zuten Larraine herria ere beste pastoraletako emateko asmatan litekeela.